

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Ebazpenaren laburpena, 2024ko abuztuaren 23koa, Tokiko Gobernu Batzarrarena, erabaki horren bidez, zuzendu egiten da 2024/2613 iragarkia, 2024ko abuztuaren 16ko 92 zenbakiko ALHAOn argitaratua. Iragarki hori alkate-udalburuaren 2024ko abuztuaren 2ko Ebazpenari buruzkoa da. Ebazpen horren bidez, gizarte-kohesioaren esparruko irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako 2024an egindako jardueren dirulaguntzetarako deia egin zen

BDNS(Identif.): 779091.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/779091>).

Akats bat atzeman da 2024/2613 iragarkian, zeina 2024ko abuztuaren 16ko (ostirala) 92. zenbakiko ALHAOn argitaratu baitzen. Iragarki hori alkate-udalburuaren 2024ko abuztuaren 2ko Ebazpenari buruzkoa da. Ebazpen horren bidez, gizarte-kohesioaren esparruko irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkartei dirulaguntzak emateko deialdia egin zen, 2024an jarduerak egin zitzaizkien. Honen bidez akats hori zuzendu egiten da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua emandako ahalaren arabera, "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Euskarazko bertsioan, honako hau zioen lekuan:

"Ebazpenaren laburpena, 2024ko abuztuaren 2koa, Tokiko Gobernu Batzarrarena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde eta/edo elkarteentzako 2024ko lehia librerako dirulaguntzetarako deialdia egiten duena."

Hau esan behar du:

"Laburpena, alkate-udalburuaren 2024ko abuztuaren 2ko Ebazpenarena. Ebazpen horren bidez, gizarte-kohesioaren esparruko irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteentzako dirulaguntzen deialdia egin zen, 2024an jarduerak egin zitzaizkien."

Berretsi egiten da argitalpenaren gainerakoa aldatu gabe mantentzen dela, epeak barne, abuztuaren 16an egindako lehen argitalpenetik zenbatzen jarraitzen baita.

Laudio, 2024ko abuztuaren 23a

Alkate-udalburua
AINIZE GASTAKA MARTINEZ